1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa EcheGARAY jaunak aurkezturiko galdera, Gazteriari buruzko Foru Planeko osasunaren arloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Gazteriari buruzko II. Foru Plana 2019ko abenduaren 31n amaitu zen. Gaur egun, Gazteriari buruzko III. Foru Plana ezagutzeko zain gaude.

2020. urteari dagokionez, parlamentari honek honako hau eskatzen du, osasunaren arloari dagokionez.

– Gazteentzako ekintzen xehetasuna eta horien edukia.

– Ekintza bakoitzerako kalkulaturako aurrekontua 2020rako.

– Ekintza bakoitzerako 2020-09-30ean gauzaturako aurrekontua.

– Ekintza bakoitzak ukitutako / onuradun bihurtutako gazteen kopurua.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

Galdera, Gazteriari buruzko Foru Planeko etxebizitzaren arloari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Gazteriari buruzko Foru Planeko etxebizitzaren arloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Gazteriari buruzko II. Foru Plana 2019ko abenduaren 31n amaitu zen. Gaur egun, Gazteriari buruzko III. Foru Plana ezagutzeko zain gaude.

2020. urteari dagokionez, parlamentari honek honako hau eskatzen du, etxebizitzaren arloari dagokionez.

– Gazteentzako ekintzen xehetasuna eta horien edukia.

– Ekintza bakoitzerako kalkulaturako aurrekontua 2020rako.

– Ekintza bakoitzerako 2020-09-30ean gauzaturako aurrekontua.

– Ekintza bakoitzak ukitutako / onuradun bihurtutako gazteen kopurua.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Foru erkidegoko garraio txartel bakarrari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Foru erkidegoko garraio txartel bakarrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

2019ko urriaren 30ean, Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Cirizak iragarri zuen Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko garraio-txartel bakarra ezarriko zuela, Nafarroako Bidaiarien Hiriarteko Garraioaren Plan Integral (PITNA) berriaren barruan.

2020ko irailaren 9an, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Bartzordearen barruan, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin egindako lan-saio batean, Nafarroako 2. Parlamentu Gaztearen proposamenetako bat

ezagutu genuen: garraio txartel bakarra ezartzea, Nafarroako gazteek asko eskatzen baitute.

1.- Zer urrats egin dira 2019ko urritik hura ezartzeko?

2.- Zer egun aurreikusi du Gobernuak plana ezartzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, baheketa masiboak egiteko irizpideei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, baheketa masiboak egiteko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Pandemian zehar, Osasun Departamentuak hainbat herritan edo kolektibotan baheketa masiboak egiteko jarraitu dituen irizpideak.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Andelosea sartzeko Arga ibaiaren gaineko Mendigorriko zubian aurreikusten diren jarduketei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera, Andelosea sartzeko Arga ibaiaren gaineko Mendigorriko zubian aurreikusten diren jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Zer jarduketa egitea aurreikusten du Lurralde Kohesiorako Departamentuak Andelosea sartzeko Arga ibaiaren gaineko Mendigorriko zubian, hurrengo bi urteetan (2020 eta 2021)?

Iruñean, 2020ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Fiteroko sarbidean NA 6900 errepidea hobetzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera, Fiteroko sarbidean NA 6900 errepidea hobetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Lurralde Kohesiorako Departamentua lanean ari al da Fiterora doan NA 6900 errepideko gutxi gorabehera 17. kilometrotik aurrerako tartea hobetzeko egokitzapen edo proiektu berri bat egiteko? Erantzuna baiezkoa bada, zer aukera planteatzen dira eta zer egutegi erabiltzen da obrak egiteko?

Iruñean, 2020ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Kultura Departamentuak José María Iparragirre Balerdiren jaiotzaren 200. urteurrena dela-eta Karlismoaren Museoan hitzaldi bat edo jarduera bat egiteko ezetzari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Kultura Departamentuak José María Iparragirre Balerdiren jaiotzaren 200. urteurrena dela-eta Karlismoaren Museoan hitzaldi bat edo jarduera bat egiteko ezetzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

Aurten, Lizarrako Karlismoaren Museoa ireki zeneko X. urteurrena ospatuko da. Bere webgunean adierazten denez, hauxe da museoaren egitekoa:

“Karlismoaren Museoaren helburuak dira Nafarroako eta Espainiako karlismoaren historia zaintzea eta zabaltzea. Karlismoa XIX. eta XX. mendeetako historiaren testuinguruan aztertzen da, prozesu politiko eta sozial gisa, Europako eta munduko beste batzuen antzera”.

Aurten, halaber, Jose Maria Iparagirre Balerdi herri kantautore eta olerkari ezagunaren jaiotzaren 200. urteurrena ospatuko da.

tzaren 200. urteurrena ospatzen da. Iparragirrek, besteak beste, Gernikako Arbola konposatu zuen. Pedro José Chacon Delgadok, “Nobleza con Libertad. Biografía de la derecha vasca” liburuan, honako hau dio José María Iparragirreri buruzko atalean:

“Lehenengo Karlialdia: 1833an, lehen karlistadak hasi zenean, Iparragirrek bere etxetik ihes egin zuen – “Nire herrikideekiko maitasuna beste iritzirik gabe” –eta Euskal Herrira joanez, karlisten lerroetan sartu zen boluntario, Gipuzkoako lehen batailoian, Iturrizaren agindupean eta ondoren Alzaaren agindupean. 14 urte besterik ez zuen orduan. Libre geratzen zitzaizkion uneetan, gitarra jotzen zuen, letra eta musika sortzen zuten abestiak kantatuz. Arrigorriagako eta Kastrexanako borroketan, biak Bizkaian, eta gero Mendigorriko guduan, Nafarroan (1835eko uztailaren 16an), zauriak jasan zituen, eta egun batzuk lehenago preso erortzeko zorian egon zen. Karlos V.a erregegaiaren Errege Guardiako alabardarien eskudroian kokatua, lau probintzietatik aukeratutako gazteek osatua, hor jarraitu zuen gerra amaitu arte. Bergarako hitzarmena baztertu eta Frantziara erbesteratu zen”.

Legebiltzarkide honek, Euskal Herriko Karlista Alderdiak emandako informazioen bidez, Karlismoaren Museoko arduradunei egindako eskaeraren berri izan du. Izan ere, X. urteurreneko programazioaren barruan edo hortik kanpo, baina betiere Urretxuko Bardoaren jaiotzaren 200. urteurrena kontuan hartuta, eskatzen zen kantautore oparo eta polemikoari buruzko hitzaldiren bat egitea, Lehen Karlialdian parte hartu zuela kontuan hartuta, baita Nafarroako lurraldean ere, Mendigorriko batailan. Badakigu Museoen Zerbitzuko arduradunaren erantzuna hau izan dela:

“Karlismoaren Museotik Iparragirreri buruzko hitzaldi bat egiteko proposamena helarazi didate. Eskaera horri erantzunez, jakinarazten dizut Zerbitzu honek ez duela ekitaldi hau programatzeko aukerarik ikusten, ez delako egokitzen Museoaren 2020rako kultur programazioaren egutegian eta gaietan. Era berean, zalantzak sortzen zaizkigu hizlariaren egokitasunari buruz, ez baitugu aurkitu Iparragirreri buruzko egile horren argitalpen espezializatuen aipamenik, eta Museoaren irizpidea goi mailako zabalkunde zientifikoa egitea baita”.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Kultura eta Kirol Departamentuak uste al du José María de Iparragirre Balerdiren bizitzari eta lanari buruzko hitzaldi bat ez datorrela bat “Karlismoaren Museoaren 2020rako programazioaren egutegiarekin eta gaiekin”, jakinda haren bizi- eta politika-ibilbidea karlismoaren ideologiatik oso hurbil eta halaber urrun egon zela?

– Zer arrazoik justifikatzen zuten zerbitzu horren arduradunarentzat proposamen hori ez sartzea Karlismoaren Museoaren 2020rako programazioaren egutegian eta gaietan?

– Kultura eta Kirol Departamentuari egokia irudituko litzaioke, aurren Jose Maria Iparragirre Balerdi bezalako maila unibertsaleko figura baten jaiotzaren 200. urteurrena dela eta, Karlismoaren Museoak ekitaldi, hitzaldi edo aldi baterako erakusketaren bat antolatzea, pertsona horren ideologia karlista eta bere bilakaera ideologikoarekin zerikusia duena?

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia jauregiko hotelaren oinarrizko proiektuari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Lekarozko Aroztegia jauregiko hotelaren oinarrizko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

2019ko maiatzaren 5ean, Kultura Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Ondare Arkitektonikoaren Atalak txosten bat egin zuen Lekarozko Aroztegia jauregiko hotelaren oinarrizko proiektuari buruz –Palacio de Arozteguía SL enpresak sustatua–. Txostenaren 6. apartatuan oinarrizko proiektuari buruzko zenbait gogoeta eta ohararazpen egiten ziren, bereziki proposatzen diren eraikuntza berriei buruz, eta horiei buruz

ondokoa esatera iristen zen: “Eraikuntza-desoreka gertatzen da, bai eta eskala falta ere, kultur-ingurune horretan desegokia dena eta Aroztegiaren baloraziorako ez ezik, Lekarozko herriaren baloraziorako kaltegarria dena. Eraikin horiek ez daude integraturik ez eremu horretako ez bailarako kultur-ingurunean, eta ez dituzte errespetatzen ingurune ingurumen-balioak, ez eta lehendik dauden eraikinekiko harmonizazioa ere, oroitidazkiaren 18. puntuan kontrakoa esaten bada ere. Izan ere, bolumetriari eta ezarpenari adierazitakoaz gain, gehitu behar da ezaugarri formalek ez dutela errespetatzen tokiko tradizio-eta tipologia-testuingurua, ezta paisaiarekiko integrazioa ere. Horrek bide ematen du ondorioztatzeko eraikuntza berrirako proposamena ez dela egokia”.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Gobernuak ba al daki Lekarozko Aroztegia jauregiko hotelaren oinarrizko proiektuaren enpresa sustatzaileak, Hotel Palacio de Arozteguía SL-k, udalean aurkeztu ote duen proiektu horren aldaketa, Kultura Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Ondare Arkitektonikoaren Atalak 2019ko maiatzaren 5ean eginiko txostenaren bidez eginiko eskakizunei egokitze aldera?

– Baztango Udalak helarazi al dio Hotel Palacio de Arozteguía SL-k oinarrizko proiektua eskakizun horietara egokitzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa?

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, “itzaleko bidesari-sistema’ izenekoaren bidez finantzatutako autobiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, “itzaleko bidesari-sistema’ izenekoaren bidez finantzatutako autobiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

“Itzaleko bidesari-sistema” izenekoaren bidez finantzatutako autobiei dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

- Diru-kutxa publikoei begira zer eragin ekonomiko izan du COVID-19aren krisian zehar autobietako erabiltzaile-kopurua jaitsi izanak?

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko zenbait aurrekontu-partida ez-betetzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko zenbait aurrekontu-partida ez-betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztzen dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

Behean sinatzen duen parlamentariak egindako galdera bati erantzunez azaldu da ondotik datozen partidak ez direla bete eta aurreikusten dela ez direla beteko gelditzen den ekitaldi-epean zehar.

Partidak:

– 010005017006094921103, (E) Informatikako elkarreragingarritasuna, Gardentasunaren Kontseilua, 40.000 euro

– 010005017206094924902, (E) Partaidetzako aurrekontuen diseinua eta prestakuntza, 45.000 euro

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Zergatik utzi ditu Departamentuak aurrekontu-partida horiek bete gabe?

– Gobernuaren ustez Gardentasunaren Kontseilua kudeatzeko eta kontrolatzeko programaren lehentasuna ez da iristen hura ahalbidetuko lukeen partida betetzeraino?

– Partaidetzazko aurrekontuen diseinua eta prestakuntza lanak egitea ez da lehentasunezkoa Departamentuarentzat?

– Uste al du aurrekontu-partida horiek –zeinak aurrekontuan sartu baitziren aurrekontua onesteko izapide parlamentarioan onetsitako zuzenketen bidez– lehenetsi beharko liratekeela hura betetzerakoan, hain zuzen ere Parlamentuaren berriazko agindua delako?

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait aurrekontu-partida ez-betetzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait aurrekontu-partida ez-betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

Behean sinatzen duen parlamentariak egindako galdera bati erantzunez azaldu da ondotik datozen partidak ez direla bete eta aurreikusten dela ez direla beteko gelditzen den ekitaldi-epan zehar.

Partidak:

710004 71350 4819 412202 (E) Entitate laguntzaile gisa aitortutako animalien babeserako elkarteentzako laguntzak, 50.000,00 euro.

710006 71500 7609 414300 PDR FEADER 2014-2020 LGP LGENF, Tokiko abeltzaintza-azpiegituretako inbertsioak, 1.239.780,00 euro.

720001710006715106019 Lurren jabetza antolatze eta lurzati berrantolamendua egiteko obrak, 200.000,00 euro

720003 72220 4819 413102 Kalitatezko ekoizpenen ekitaldietarako eta sustapenerako laguntzak, 25.000,00 euro.

720004 72230 7700 412105 Inbertsioak abeltzaintzako ustategietan biosegurtasuna hobetze aldera, 250.000,0 euro.

740003 74300 7609 452100 Toki entitateentzako diru-laguntzak, ibaietako jarduketarako, 100.000,00 euro

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Zergatik utzi ditu Departamentuak aurrekontu-partida horiek bete gabe?

– Gobernuaren ustez partida horiek ez betetzean eutsiko al zaie 2020ko ekitaldian zehar partiden xede diren helburuei eta beharrezaneiei?

– Uste al du 710004 71350 4819 412202 (E) Entitate laguntzaile gisa aitortutako animalien babeserako elkarteentzako laguntzak, 50.000 euroko partida –zeina aurrekontuan sartu baitzen aurrekontua onesteko izapide parlamentarioan onetsitako zuzenketen bidez– lehenetsi beharko litzatekeela hura betetzerakoan, hain zuzen ere Parlamentuaren berriazko agindua delako?

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, energia berriztagarria sortzeko plantak paratzea modu ordenatuan sustatzeko xedez tresna publiko bat sortzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, energia berriztagarria sortzeko plantak paratzea modu ordenatuan sustatzeko xedez tresna publiko bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Energia berriztagarria sortzeko plantak paratzea modu ordenatuan sustatzeko xedez tresna publiko bat sortzeari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera eta borondatea hura abiarazteari buruz?

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, etxebizitzak eraikitzeko eta zaharberritzeko zerbitzu publiko bat abian jartzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, etxebizitzak eraikitzeko eta zaharberritzeko zerbitzu publiko bat abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan: Aurri egoeran edo bizigarritasunik gabe dauden higiezin jabe diren partikularren eta toki entitateen zerbitzuko etxebizitzak eraikitzeko eta zaharberritzeko zerbitzu publiko bat abian jartzeari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak edo haren tresna publikoren batek aurreikusi al du tresna publikoak eta estrategiak sortzea edo egokitzea, leheneste aldera erabil daitezela, jadanik izan eta eraikita badaude ere, etxebizitzaren eginkizuna betetzen ez dutenak?

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, egungo espetxe-politikari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera egungo espetxe-politikari buruzkoa zen, eta 2020ko irailaren 22ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00260).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, Mahaiaren 2020ko urriaren 13ko erabakiaren bidez onetsia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2020ko urriaren 12an argitaratu da 54/2020 Foru Agindua, urriaren 11koa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz. Arau horren ondorioz, eritasunaren transmisioa gutxitze aldera esparru parlamentarioan neurri murriztaileagoak hartu behar dira, zeinek dakarte, besteak beste, barneko gune itxietan baimenduriko gehieneko edukiera gutxitzea. Neurri hauek aldi baterako aurreikusi dira, 2020ko urriaren 26ra arte hain zuzen, baina luzatzen, aldatzen edo bertan behera uzten ahalgo dira egoera epidemiologikoaren arabera.

Hori dela-eta, laguntzeko betebeharrak eman dako errekerimendu orokorraren aurrean, bidezkoa jotzen da Nafarroako Parlamentuak onetsitako Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzea.

ERABAKI DA:

1.- Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, ondoren aipatzen den moduan:

“Bigarrena.- Bilkura ez-presentzialak eta mistoak (presentziala eta bideokonferentziakoa) nola egin.

1. Presentzialak edo mistoak izateko deituak diren osoko bilkuren eta batzordeen bilerak Osoko Bilkuren Aretoan eta Batzorde Aretoetan eginen dira.

Parlamentuko Mahaia eta Batzordeetako Mahaiak Parlamentuko beste areto batzuetan biltzen ahalko dira, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia gordetik.

2. Osoko Bilkurak eta batzordeen bilkurak presentzialak edo mistoak direnean, ez da gaindituko areto bakoitzean baimenduriko edukieraren % 30, eta beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira pertsonen arteko metro eta erdiko segurtasun-distantziari eusteko.

3. Osoko Bilkuretan egonen dira Nafarroako Gobernuak lehendakaria eta gehieneko bost kontseilari. Mahaiko bost kideak, Legelari Nagusia eta harekin batera doan legelaria, bai eta talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunak edo horien ordezkariak.

Gainerako kideen parte-hartzea bideokonferentziaz gauzatuko da, esku hartu behar dutenean. Bilkura horietan, aurretiazko boto-eskuordetze bidez egiten ahalko da bozketa, Erregelamenduko 94.2.b) artikulua eta lehendakariaren 2020ko martxoaren 24ko 28/2020 Erabakiak xedatuari jarraituz (Foru parlamentarien boto-eskuordetzeari buruzko erabakia, COVID-19 koronabirusak sorturiko osasun-larrialdiko krisiari erantzutekoa; 38. NPAO, 2020ko martxoaren 25eko).

4. Osoko Bilkuren aretoan egiten direnean, batzordeen bilkuretan presentzialki egonen dira haien kide guztiak, bai eta haiei lagunduko dien legelaria eta agerraldia egitekoa den kontseilaria ere. Azken horri bi pertsonak lagunduko diote gehieneko.

Nolanahi ere, foru parlamentariak zilegi izanen dute bideokonferentziaz aritzea, bilera mistoak direnean. Era berean, zilegi izanen dute bideokonferentziaz esku hartzea kontseilariak edo haien laguntzaileak, salbuespenez eta Batzordeko lehendakariari aurretiazko eskaera eginda. Bilkura horietan, bozketa publikoa eginen da, banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikulua ezartzen duenari jarraituz.

5. Batzorde aretoetan egiten diren batzorde-bilkuretarako joan behar dira batzordeburua edo haren

ordez diharduena, talde parlamentario bakoitzaren eta foru parlamentarien elkartearen ordezkari diharduen parlamentari bana, haientzat lanean diharduen legelaria eta agerraldia egitekoa den kontseilaria, gehienez ere laguntzaile bat alboan duela. Gainerako kideen parte-hartzea bideokonferentziaz gauzatuko da, esku hartu behar dutenean. Zilegi izanen dute bideokonferentziaz esku hartzea kontseilariak edo haien laguntzaileak, salbuespenez eta Batzordeko lehendakariari aurretiazko eskaera eginda. Bilkura horietan, bozketa publikoa egingen da, banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikulua ezartzen duenari jarraituz.

6. Mistoak izateko deituriko bilerak alde presentzialki eta alde telematikoki egingen dira, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari eta Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren eta Batzordeen bilkura telematikoa egiteko jarraibideei heldurik (51. NPAO, 2020ko maiatzaren 11koa). Bat-bateko matxura tekniko bat gertatuz gero, parlamentari bati eragotzi egiten diona parte hartzea, dela bideokonferentziaz dela segimendua, eztabaida eta bozketa bermatzeko egokiak diren bestelako sistema teknikoen bidez, eten egingen da bilkura, non eta kasuko parlamentariak ez duen modu fede-emailean adierazten baimendu egiten duela bilkurak jarrai dezan”.

“Bosgarrena. - Etendako jarduerak.

1. Etendako jarduera guztiei berriro helduko zaie, ikasleek egoitzara egiten dituzten bisitei izan ezik, horiek bertan behera geratu baitira. Nafarroako Parlamentuak antolatzen dituen ekitaldi guztietan bermatu beharko da Legebiltzarraren areto bakoitzaren gehienezko edukiera betetzen dela eta metro eta erdiko pertsonen arteko distantzia errespetatzen dela.

2. Osoko Bilkuretara gonbidaturiko publikoari buruz honako hau aintzat hartu beharko da:

- Bertaratzen ahal direnen gehienezko kopurua ezarriko da, kontuan hartuta ezin izanen dutela gainditu eremu horretan baimenduriko edukieraren % 30.

- Bertaratzen direnek eserita egon beharko dute eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia bermatu beharko dute.

- Distantzia-irizpideak betetzen ez dituzten eserlekuak baliogabetuko dira.

Beharrezkoak diren antolamendu-neurriak hartuko dira sarrera-irteerak era mailakatuan egin daitezten.

2.- Osasuneko kontseilariaren urriaren 11ko 54/2020 Foru Agindua indarrean dirauen bitartean, bermatu beharko da Legebiltzarreko gune bakoitzean baimendutako % 30eko gehienezko edukiera betetzen dela eta pertsonen arteko metro eta erdiko distantzia errespetatzen dela; zehazki, Nafarroako Parlamentuak antolatutako ekitaldi guztietan eta Nafarroako Parlamentuko liburutegiaren erabileran. Era berean, aipatu foru aginduan xedatutakoa errespetatu beharko da kafetegiz-zerbitzua emateari dagokionez.

3.- Erabilera publikoko Parlamentuko areto guztiak ahalik eta maizen aireztatu beharko dira, eta, betiere, egunean 3 aldiz gutxienez.

4.- Erabaki hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta 2020ko urriaren 26ra arte iraunen du, eta egoera epidemiologikoaren arabera Mahaiak zehazten ahalko du horren luzapena, aldaketa edo bertan behera uztea.

5.- Erabaki hau hurrengoek jakinaraztea: foru parlamentariak, Legebiltzarreko langileak, Foruzaingoari eta Nafarroako Gobernuari.

6.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideen hautaketa.

HAUTAGAIAK ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kideak hautatzeko arauekin bat, zeinak 2020ko irailaren 21eko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (101. NPAO, 2020-09-25ekoa), honako hau ERABAKI DA:

1. Honako hauek aldarrikatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide izateko hautagai:

– Juan Ramón Corpas Mauleón jauna, Navarra Suma talde parlamentarioak proposatuta.

– Ubaldo González Delgado jauna, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak proposatuta.

– Miguel Arrarás Paños jauna, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

– Idoia Sara Pérez andrea, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

– Esteban Morrás Andrés jauna, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias